

# Goi

Goierritarra aldizkaria

411 zenbakia 2011ko azaroak 18



**ORMAIZTEGIKO  
ODOLKI  
LEHIAKETA**



**ANDONI  
AIZPEOLEA**

KIROLA  
ZAILTASUNARI  
AURRE EGITEKO



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

[www.faktore.net](http://www.faktore.net)



**LOPETEGI**  
*equipamiento integral de espacios*

Uriz kalea, 29 Lakuntza (Nafarroa) Tel.: 948 57 60 68

Sukaldeak

Zeramikak

Erreformak

Bainugelak

Beheko suak



[www.lopetegi.es](http://www.lopetegi.es)

## DO'S formación: kalitatea eta banakako arreta

DO'S FORMACIÓN-en, 30 urteko eskarmentua dugu puntako ikastaroak ematen: hizkuntzak (ingelera, alemana, txinera...), informatika, enpresen kudeaketa, giza baliabideak eta kalitatea.

Enpresa bakoitzaren beharretara moldatzen gara taldeka edo banaka irakatsiz. Horrez gain, klaseak aurrez-aurre, on line edo era mistoan ematen ditugu. Metodologia adinaren arabera aukeratzen dugu, ikaslearen denbora eta ahalegina gehien aprobetxatuz.

Azterketa ofizial desberdinak prestatzen adituak gara eta gure ibilbidean zehar ikasleek azterketen gaitz maila bikaina lortu izan dute. Hau dena irakasle talde bikain bati esker.

Diruz lagundutako ikastaroak ere ematen ditugu, bai LANBIDEn bidez (langabetuentzat), baita HOBETUZen bidez ere (langileentzat).

Dena den, guregana hurbiltzera gomendatzen zaituztegu informazio zehatzagoa jaso ahal izateko.



[www.dosformacion.com](http://www.dosformacion.com)  
Nafarroa etorbidea, 1 - BEASAIN  
943 88 03 46 - 656 70 86 31



Igor Bueno

Kaixo Etor, Hemen, Euskal Herritik milaka kilometrotara eta nere kasuan lau hegazkinen premian, hau da, Philipinasen, Boracay izeneko irla xelebrea, White Beach famatuaren bestekaldean, Bulabog Beachen alegia. Aste honetako gaia haizerik ez dagoela da, kometak geldirik zerek! Baina haize preziatua bidean da, iristear da, jada somatzen da, eta datozen egunetan paisaia erabat aldatuko da, airea soinekoz jantzikobaita.

Kirola, hainbeste aukera! Danean saiatu gaituk, arrakasta handirik gabe ordea, baina oraingotan KiteBoardarekin ausartzea oukurritzeare! Eta hara non, sorpresa! Kometan esku-barra bizikletan manillarra manejatzea bezala dek! Ah, hori bai, geo ur-oholaren gainean zutik irautea beste kontu bat dek! Hi Etor, probatu beharko huke!

## Zenbaitzuk hitzen esanahiak nahasten ditiztek, indarkeria, demokrazia, bakea, krisia...

Euskal Herrian ze berri? Gai potoloak jarraitzen dizkiat bai, lagun internet bidez, eta azkenaldian ohikoa baino gezur gehiago somatzen diat. Hauteskundeak? Baneoanba! Bada, tentuz ibili hadi! Zenbaitzuk hitzen esanahiak nahasten ditiztek, indarkeria, demokrazia, bakea, krisia... Pentsa, Obama jaunari bakearen Nobel saria eman ziotean, eta bere hitzaldian indarkeria justifikatu zian! Garzon jaunak izan dizkik kasuak begien bistan, eta Europako Torturaren Prebentziorako Batzordeko kide izendatu ditek! Islandian bideratu ditek krisia, baita Grezian ere, baina, guztiz kontrako neurriak hartuz. Nik ere badizkiat kontraesanak, baina halakorik! Ene! Oporren bueltan nik bai jasango diatela krisia!

Epa Igor! Orain ere oporretan? Ba hemen ez diagu haize faltarik izan azkenaldian... Ezta euriarenik ere azken asteburuan!

Behobia-Donostia gainean diagu eta jende uholdea izango da errepideetan igandean. Noiz ikasiko ote diagu: 23.000 lagun, maila eta asmo desberdinekin, bakoitza bere erritmoan baina azken helburu berdin baten atzetik, denak norabide berdinean korrika... Halere aurten (krisiagatik ote?) izan dek zalaparta antolatzaile eta federazioaren artean 3 eurotako kanon baten inguruan. Ondorioz eliteko kirolaririk ez dek izango eta inoiz baina herri-tarragoa izango diagu lasterketa!

Gure egunerokoan berriz, ETA-ren mehatxurik gabeko hauteskunde hauen haseran Nafarroan hautetsi batek ezagutu omen dizkik poliziaren hiritartasunarekiko heziketaren emaitzak. Biontziaren garaia bukatu ote dek? Eta bat-batean alderdi guztiek zeuzkatek krisiari aurre egiteko errezetak eta denak zeudek gure alde lan egiteko prest. Orduan zertan ibili dituk orain arte herritarrok ito eta merkatuak "salbatzen"?

Kontraesanak guztiok dizkiagu. Kontraesan kontua baino moral kontua gehiago dek hori. Eta hauen moralala ez dek Behobiatik

## Bazirudik egoera hau pixka batean gelditzeko etorri dekela, baldin eta gizarte eredu aldutzen ez badiagu. Eta hori gure esku ere bazegok.

Donostiarako korrikaldia egingo dien kirolarienaren pareko. Hauena moral bikoitza dek. Langileon eskubideei eta soldatei guraizeak sartu eta beraien soldatak dietekin borobiltzen dizkienen moralala. "Terrorismoa" gaitzetsi eta gerrak eta herri osoen suntsiketak bultzatzen dizkienen moralala. "Demokrazia" goraiatu eta erreferendum ahalegin batek beren onetik ateratzen dizkikenen moralala...

Nik uste herri hauen agintarien izaera demokratikoak izango ziala zerikusirik: batzuk herriaren esana bete zien bitartean, besteek herritarrei hitza ukatzen ziek... non eta Grezian! Historiaren paradoxak. Gainera orain Italia eta Espainiaren txanda omen zeterrek, eta bazirudik egoera hau pixka batean gelditzeko etorri dekela, baldin eta gizarte eredu aldutzen ez badiagu. Eta zorionez hori gure esku ere bazegok. Lehen aukera azaroaren 20-an izango diagu eta gogoratu, bozka ematerakoan, zulo honetan sartu gaituek ez gaituela inolaz ere bertatik aterako.



Etor Mendia

**GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:**

Altzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



**Goi**  
Goierriarria aldizkaria

**Argitaratzailea:**  
Goierriko Hedabideak S.L:  
**Urbialde plaza, 7 - behea**  
**BEASAIN**

**Posta elektronikoa:**  
goierritarra@goierrikohitza.info  
**Telefonoak:**  
**Erredakzioa:** 943 16 00 56  
**Publizitatea:** 647 319 775  
**Harpidetzak:** 902 820 201

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre  
**Maketazioa:** Mikel Albisu

**Inprimaketa:** Gertu  
**ISSN:** 1132-0907  
**Lege gordailua:** SS-926/89

**GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística

Individueltasuna eta egoismoa egozten dizkiogu gaur egungo gizarteari, baina kontrako jarrera eskuzabalak erakusten dituen jenderik ere bada, zorionez.



Joseba Imaz Ganzarain

## Txusen esker ona

**T**xus izena zuen gizaseme hark. 35 bat urte, ile kizkurra eta modaz pasatako betaurrekoak. Nekea eta tristura nabari zen haren mugimenduetan. Etsipenak jotako begi haiekin, aurreko orduetan hainbeste aldiz esandako hura errepikatu zuen: "Etixerik gabe geratu naiz. Urez beteta jarraitzen du oraindik ere".

Lan kontuak tarteko, uholdeek kaltetutako zenbait herritarren bizipenak ezagutzeko parada izan dut. Errekak gainezka egin ondorengo laugarren egunean entzun nituen gorago jasotako hitz horiek. Zoritzarreko horien artean baitzegoen Txus, Txomin Enea barrioko donostiarra. Gainontzeko auzokideekin batera, hiriburuko alkatearekin egindako bileran hartu zuen parte, Urumearen hazialdia jasan ondoren. Uraren indar txikitzailea beren larrutan sufritzen ari ziren bitartean, babes falta erabatekoa sentitu omen zuten txominarrek. Eta hala aurpegi-ratu zioten Juan Karlos Izagirri, parean tokatu zitzaizenean. Donostiako Udaletxeko buruak, berriz, apaltasuna eta gizalegea erakutsi zuen, autokritika egin eta herritarren kexak adi entzun zituenean.

Gaitzespen eta aurpegi-ratze garratzik ez zen falta izan bilera hartan. Baina ez nuke horretara zuzendu nahi irakurlearen begirada. Nahikoa idatzi dute dagoeneko horri buruz. Biltzar hartako une batean, Txus izeneko gizon gazteak mikrofonoa eskatu zuen eta bizilagunei eskerrak eman zizkien. Pasatako momentu txarretan, ez omen ditu inoiz ahaztuko jasotako babesa eta laguntza, adierazi zuen, hunkituta.

Txispa hark esker onaren metxa piztu zuen bilera hartan. Hona adineko emakume batek orduan esandakoa, adibide gisa:

"Asteartean, oraindik bazterrak urez gainezka zeudela, Gros auzoko gazte bat etorri zen, inork hala eskatu gabe, auzokoei laguntzera. Txalo bat merezi du hark ere". Zaparrada galanta jaso zuen bolondres anonimoak.

Individueltasuna eta egoismoa egozten dizkiogu behin eta berriro gaur egungo gizarteari, baina kontrako jarrera eskuzabalak erakusten dituen jenderik ere bada, zorionez. Gauza pozgarria eta goraipatzeko modukoa.

Etxean askotan entzun dut 1983ko uholdeak jazo zirenean, Madriletik zetorren tren bat Beasaingo geltokian harrapatuta geratu zela. Ez atzera eta ez aurrera. Trenbide gaineko hotel inprobisatu hartan gaua pasa behar izan zuten bidaiariek. Haien egoera ikusita, Segura Irratiko uhinen bitartez, laguntza eskatu zieten beasandarrei. Gau hartan ez zuten mantarik falta izan, ezta arrautza eta esnerik, inguruko baserriarren bati esker.

Nabarmena da. Ezbehar kolektiboen ondoren indartsu ernetzen da giza solidaritatea. Azken uholdeen ondorengo asteburuan ikusi da hori, berriro ere, Donostiako auzoetan. Udalaren deialdiari jarraituz, palak eta saskiak eskuetan, makina bat lagun bildu da kaltetutako guneean, behar zuenari laguntza eskaini asmoz.

Ezbeharra indibiduala denean, norbanakoarena, orduan kosta egiten da eskuzabaltasun maila bera erakustea sufritzen duenarekiko. Zer esanik ez bizilagun horrek azal kolore ezberdina daukanean. Gizarte justuago bat izango genuke elkartasun hori eguneroko bizitzan ere txertatuko bagenu. Egungo egoerak ematen ditu, tamalez, horretarako hamaika aukera.

**PREZIO BERRIAK**

**SEGURAN**

2,3 LOGELA eta DUPLEXAK



Tel : 943 88 37 39

www.lamylazkao.com



**Goi**  
Goierriarra aldikaria

**Egin harpidedun**

**902-82 02 01**  
Astegunetan 08:30-20:30  
Larunbatetan: 09:00-13:00

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea  
Beasain

## Nola... -(en)

Maizpide euskaltegia

### Noiz ondo eta... noiz ez hain ondo?

Errepara diezaigun ondorengo esaldiari:

Leire, **nola** sukarra **duen**, gaur ez da ikastolara etorri.

Esaldi horretan ikastolara ez joateko arrazoia eman dugu, baina modu txukunean adierazi ote dugu euskaraz? Ez, bada! Izan ere, nahiz eta askotan entzun ditugun horrelakoak, erabiler hori gaztelaniaren kalko hutsa baita! Ikusi bestela:

Leire, **como** **tiene** fiebre, **no ha venido a la** ikastola.

Nola esan behar ote dugu zuzen? Bada, horrela:

Leire, gaixo **dagoenez (gero)**, ez da gaur ikastolara etorri.

Ondorengoak ere egokiak dira arrazoia edo "kausa" adierazteko:

Leire ez da ikastolara etorri, gaixo **dago eta**.  
Leire ez da ikastolara etorri, gaixo **baitago**.

Honek guztiak zer esan nahi du... "**Nola-(e)n**" beti gaizki dagoela? **Ez!** Txukun askoa da beste hainbatetan! Hona zenbait adibide:

✓ *Aitona Alejandrok baserrian sagardoa nola egiten zuten azaldu digu.* Esaldi honi dagokion galdera hau da: Nola egiten zuten sagardoa?

✓ *Anek Aste Santuan nola Extremadurako herri batera joan ziren esan zigun atzo* (=Extremadurako herri batera joan zirela esan zigun).

✓ *Uda partean ere joango direla esan dit, nola eta ez duen bero handiegirik egiten* (=bero handiegirik egiten ez badu).

Andregaiaren urtebetetzea denez



### ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Jonek logaritmoak nola erabiltzen dituen (nolako baliabideak erabiltzen dituen) komentatu digu.
2. Izeba Marijek nola Txinatik neskatala bat ekarriko duten esan dit.
3. Bihar, nola jai izango den, ez naiz goizeko hamarrak arte ohetik altxatuko.
4. Pellori, nola eta ez den txintxo portatzen, ez diote gurasek litxarreriarik erosiko.
5. Esaldi hauek guztiak ondo dauden jakin nahi dugu!

**OHARRA:** 3. esaldian "jai izango denez" behar du!

  
**Zuriñe**  
Ederginiza

MANIKURAK, PEDIKURAK, AURPEGIKO TRATAMENDUAK, GORPUTZEKO TRATAMENDUAK, MAKILAJEAK, DEPLAZIOAK, BRONTZEZTATZEAK...

**Urrian promozioa!**

Tel.: 647 314 771  
Garmendia Otaola, 5 - beheka 3  
BEASAIN

**ZAHARRA • BERRI**  
**IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA**

A. Almeida  
620 32 62 92  
943 18 03 72  
aiakoerrota@terra.es  
ATAUN



Eraikuntzak  
Gremioen koordinaketa  
Erreforma orokorrak  
Teilatuak



# 25 urte baino gehiago Ormaiztegiko odolkia sustatuz

**U**dazkenarekin batera odolki usaina izaten da herriko kaleetan. Lehiaketak ere han eta hemen izaten dira. Beasaingoa pasatu berria da eta Ormaiztegiarena da hurrengo txanda. Aurten gainera, urteurren berezia dute ormaiztegiarrek: 25. urteurrena. Duela 29 urteko Luis Juan Unanuaren, Joxe Muruaren eta Jose Angel Galarragaren ideiak, indarrean jarraitzen du oraindik ere, ormaiztegiarren partehartzeari esker.

Duela 29 urte, martxan jarri zuten odolki dastaketa Ormaiztegiko Barduliarrak elkartean. Luis Juan Unanua, Joxe Murua eta Jose Antonio Galarraga izan ziren ideiarene bultzatzaileak. Ondoan izan zituzten sukaldaritza inguruko hainbat aditu. Besteak beste, Koldo Lasa, Juanjo Lapitz, Pello Garcia Amiano, Luis Mokoroa eta Pedro Ruiz. Elkartekideekin batera, herriko tabernetako kideak bilzen ziren dastaketa horietan.

Luis Juan Unanuak kontatu digunez, "Ormaiztegi garai hartan, Beasain baino gehiago zen, eta forma eman nahi genion. Gastronomía inguruko hainbat jenderekin elkartu eta katak egiten genituen. Odolkiaren konposizioa baloratzen zen baina ez zuen lehiaketa izaerarik. Gastronomía munduko jendea mugitzen zen gurekin, sukaldariak ere bai. Lehiaketa egitea erabaki genuen eta odolkiak puntuatzeko oinarriak eta irizpideak finkatu ziren. Garai hartan ez zegoen ezer ere. Batez ere Goierriko odolkiak dastatzen ziren. Lehiaketa izaera eman zitzaionean beste inguru batzuetako jendea ere hasi zen etortzen. Nik uste dut Euskal Herri osoko odolkiak izan ditugula, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak".

## Dastaketatik lehiaketara

Dastaketa hutsa izatetik, lehiaketa izatera pasatu zuten. Horretarako, dena den, aurretik, odolki baloratzeo irizpideak finkatu behar izan zituzten. Dagoeneko 25 urte dira lehe-



*Herriko biru odolkgileak omendu zituzten 2009ko San Migel jaietan: Iñaki Kanpos, Paulo Murua eta Jexux Mari Deba.*

**Dastaketa hutsa izatetik,  
lehiaketa izatera pasatu zuten.  
Horretarako, dena den, aurretik,  
odolki baloratzeo irizpideak  
finkatu behar izan zituzten.**

nengo Ormaiztegiko Odolki lehiaketa egin zutela. Azaroaren 27an egingo den lehiaketarekin beteko du mende laurdena Ormaiztegiko Odolki lehiaketak.

Lehiaketak berehala hartu zuen ospea eta elkarrekin plazara atera zen, Ormaiztegiko Udalarekin lankidetzan. Elkarrekin txiki gelditu eta herriko plazara,

herritarrengana zabaldu zuten ormaiztegiarrek odolki lehiaketa.

## Irizpideak

Odolki baloratzeo ondorengo irizpide hauek hartzen dira kontuan Luis Juan Unanuak zehaztu digunez: odolkiaren itxura, mozte (batzutan moztu eta odolki guztia irekitzen da; egoste denborak ere badu horretan zerikusia), azal fina edukitzea, oreka homogeneoa edukitzea, osagai guztiak ondo txikituta edukitzea, osagai guztiak ondo egosita izatea, gatz puntua, eta erabiltzen den espezie motak.

Irizpide hauen ondorioz, odolkiaren kalitatea hobetu egin dela dio Unanua. "Garai batean, Castillo Hotelerara joaten zirenak, Castillo sukaldaria zenean, kanpotik zetorren jendeak

odolki probatu nahi izaten zuen. Odolki oso artesanalki egiten zuten. Pusketa handiegia zituen eta askotan atzeraka ere eragiten zuen. Gaur egungo odolkiaren masa askoz ere homogeneoagoa da, bistarako hain desatsegina ez gertatzeko".

## Epaimahaikide

Gaur egun, orokorrean, odolkiaren kalitatea da gaur egun ona dela dio. "Beti aurkitzen dituzu gauza arraro batzuk lehiaketetan. Gantz zaharrak adibidez. Berehala antzematen dira".

Luis Juan Unanuak urte asko daramatza odolkiaren sekretuak ikusi, ikasi eta bilzen. "Beti izan dut oharrak hartzeko ohitura. Lehiaketa guztietan oharrak idazten ditut eta aurreko egunean irakurri eta erreparatu egiten ditut".

Lehiaketa ugaritan epaimahaikide izaten da Unanua. Ormaiztegi gain, Beasainen eta Zumarragan adibidez. "Ez da zaila odolki ona eta txarra bereiztea. Denok gara azkarrak ona eta txarra bereizteko. Probatzeko ematen dizutenean, usaimenarekin bakarrik gauza arrarorik ote duen antzematen hasten

## Azken 10 urteetako irabazleak

- ✓ **2000:** Iñaki Kanpos (Ormaiztegi).
- ✓ **2001:** Jesus Mari Deba (Ormaiztegi).
- ✓ **2002:** Jesus Mari Deba (Ormaiztegi).
- ✓ **2003:** Jesus Mari Deba (Ormaiztegi).
- ✓ **2004:** Iñaki Kanpos (Ormaiztegi).
- ✓ **2005:** Fernando Salegi (Zumarraga).
- ✓ **2006:** Patxi Larrañaga (Lasarte).
- ✓ **2007:** Jesus Mari Deba (Ormaiztegi).
- ✓ **2008:** Olano harategia (Beasain).
- ✓ **2009:** Olano harategia (Beasain).
- ✓ **2010:** Jesus Mari Deba (Ormaiztegi).

## Ondo egostearen garrantzia

Lehiaketako irizpideak zehazten ari zirenean, batez ere, puntu batean izan ziren iritzi ezberdin gehien: oldolkia nola egosi. "Nik uste dut lehiaketak balio izan duela, jendeak etxean odolkia nola egosi behar duen ikasteko. Batzuk gutxiegi egosten zuten odolkia. Baina odolkiak bere denbora behar du. Egokia litzateke, harakin bakoitzak egoste denbora zehaztea", azpimarratu du Luis Juan Unanuak.

Ordubete bat behar da odolkia egosteko, "su txikian edo motelean, eta zerbait gehituta: gatza adibidez. Gatzik gabe zer gertatzen da? Urak hartzen duela odolkiaren gatza eta zaporegabea gelditzen da. J e n d e a

fuertean egosiz gero, zer gertatzen da? Odola, pikatxa balitz bezala gelditzen dela. Odola asko trinkotzen da eta moztetarakoan, odola eta gainerako osagaiak ez daude hain ondo nahastuta; odola narbame-nagoa dago".




ikasten ari da urari gatz pixka bat bota behar zaiola. Tipula erdi batekin eta porruaren berde pixka batekin lagunduta, oraindik ere hobeto. Alegia, odolkiak berak dituen produktuak gehituta, odolkiak zapore hobe eta edukitzen du", gaineratu Unanuak.

Hori bai, beste sekretu bat ere esan digu Unanuak: "odolkia ez da egosi behar. Maria bainuan bezala egon beharko du ordubetean, irakitera iritsi gabe, poliki-poliki. Gure amonek sukalde zaharrea jartzen zuten, eltze batean, izkina batean, eta hantxe egoten zen, plu...plu.... Ez da egosi behar. Irakinaldi indartsuarekin dena galtzen du. Odolkia oso su

### Odolkia egosteko urratsak

- 1.- Odolkiak uretan garbituko ditugu, kanpalkaldean dituzten odol eta koipeak kentzeko. Eltze batean jarri ondoren ur hotzez estali, eta jarraian sutan jarriko dugu. Odolkiak ez ditugu inoiz ere zulatuko, hestetik odola eta koipea atera ez daitezen eta ura odolkiaren barrura sar ez dadin.
- 2.- Ordu erdik ordu betera bitartean egosiko ditugu, hestearen arabera. Urak ez du irakin behar, horrela geldi eta apal egosiko ditugu.
- 3.- Egosi ondoren eta jateko prest daudela, uretatik atera ondoren minutu batez geldi utziko ditugu, horrela moztetarakoan, ez da kizkurtuko eta garbi eta ongi moztuko ditugu.
- 4.- Eltzetik atera eta moztu ondoren, jatea komeni da, horrela ez dugu berriz, uretan sartu beharrik izango.



**MUJIKA**  
**LIBURUDENDA**

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



**ondoeta**

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com)

[www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA





zara. Gantz zaharra baldin badu, berehala antzematen da. Gaziegia badago... edozeinek antzematen dezake. Tipula eta porrua ondo edo gutxi eginda dagoen ere erraz antzamaten da. Tekikak daude: porrua edo tipula aurreko hortzera eramaten duzu eta mastekatzera berehala antzematen da ondo edo gutxi eginda dagoen”.

Goierritik kanpoko lehiaketetan ere aritzen da. Ondorioz, odolki mota ugari ezagutzen ditu Unanuak. Odolkirik onenak zeintzuk ote diren galdetu diogu. “Onena? Ezberdinak dira. Buskantza ere goxoa da, arrozarena ere bai... desber-

dinak dira. Ez naiz ausartzen onena zein den esaten. Nik uste denak direla onak”.

## Odolki zalea

Odolki zale amorratua da Luis Juan Unanua. Zaletasuna nondik ote datorkion galdetu diogu. “Sukaldaritza beti gustatu izan zaidalako. Bereziki etxetik datorkit zaletasuna, batez ere izeba zenarekin aritzen nintzen. Beti izan nuen kezka, eta beti saltseatu izan dut lagunartean”. Odolkia osagaitzat duen plateren sukaldaritza lehiaketan ere parte hartu izan du.

Odolkiaren defendatzaile sutsua da Unanua eta uste duenez, odolkiak indar handia hartu du lehiaketei esker.

**“Onena? Ezberdinak dira.  
Buskantza ere goxoa da,  
arrozarena ere bai...  
desberdinak dira.  
Ez naiz ausartzen onena  
zein den esaten.  
Nik uste denak direla onak”.**



**Luis Juan Unanua, lehiaketak sorleku izan zuen Barduliarrak elkartearen aurrean.**

Ormaiztegin bizi bada ere, beasaindarra da Unanua. Odolkiaren alde lanean ere ari diren herrikoa. “Oso harreman ona daukagu Beasainekin. Epaimahaian jakina, herri txiki batek eta herri handi batek dituen bitartekoak ezberdinak dira, eta beti markatzen dute diferentzia. Aurrekontuari dagokionean, diru gehiago mugitzen dute beasaindarrek”.

## Lehiaketa baino gehiago

Ormaiztegiko Odolki lehiaketa kalera atera zenetik, ekintza osagarri gehiago ere antolatzen joan dira pixkanaka. “Irudimena asko landu dugu eta ekintza ezberdinak sartzen joan gara, odolki lehiaketaren eguna hobetzeko”, dio Luis Juan Unanuak.

1997. urtetik, odolkiaren osagaien azoka eta lehiaketa ere izaten da egun eta leku berean. Hau da, baserritarrek odolkiak dituen osagarri nagusienak (txerri odola, tipula, porrua, perrexila eta oreganoa) aurkezten dituzte lehiaketara. Txerri onenaren lehiaketa egiten ere hasi ziren ormaiztegiarrak.

2000. urtean, beste berrikuntza bat sartu zuten: odolki osagaitzat duten plateren sukaldaritza lehiaketa. “Herriko jendeak parte hartzen du eta arrakasta handia izaten du. Epaimahaikideak, inguruko eta Gipuzkoako sukaldariak izaten dira eta esaten dute irudimen handia dagoela eta ondo eginak daudela”.

Eta azkenik, eguna borobiltzeko, ardo dastaketa ere bai. “Lehiaketako odolkiak banatu egiten dira, ardoarekin. Ekintza ezberdinen multzo bat da, odolkiaren lehiaketa hutsa baino gehiago da. Oso egun polita izaten da”.

## ‘Ormaiztegiko odolki liburua’

2007. urtean, ‘Ormaiztegiko odolki liburua’ liburua kaleratu zuten. Gai ugari biltzen da bertan: odolkiari gorazarrea, odolkiaren jatorri historikoa, Ormaiztegiko hestebeteen tradizioa, odolki hiztegiaren, odolkiari laguntzeko ardo egokia, nola egosi odolkiak, 2000. urtetik Ormaiztegiko Odolki lehiaketaren irabazleak, eta odolki osagaitzat duen errezeta sorta.

Liburuari bistadizo bat emanda, bitxikeria ugariaren artean, bi nabarmenduko ditugu.

- ✓ Aftonitas greziarrak asmatu omen zuen odolkiak. Hala dio behintzat Platonek El Mithaicosen (K.a. 428. urtean) jasotako adierazpenak. Txorixoaren asmatzaile bera.
- ✓ Aita Manuel Larramendik gaztelania-euskara-latina hiztegiak honela dio “morquilla” hitzari buruz: “hitz hau bascuencetik dator eta “mor”, “mora”-k hestea esan nahi du eta euskalki batean lodia eta “illa”-k hildakoa.

## Esker ona

Ormaiztegiko San Andres jaietan egiten den Odolkiaren egun hau 25 urtean antolatzea, “hau guztia posible da, jende askoren laguntzarekin. Batzuk zoritxarrez bidean gelditu dira. Denak eskertu nahi ditut, hau ez da baten kontua, denon artean egindakoa baizik. Jende askok kolaboratzen du”, nabarmendu nahi izan du Luis Juan Unanuak.

Berdintasun Plana 2009-2012 garatzen ari da Ordiziako Udala

# Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna helmuga

**B**adira urte batzuk, Ordizian, genero berdintasun arloan lanean ari direla. 'Ordiziako Udaleko emakumeen eta gizoneen berdintasunerako plana. 2009-2012' da horren adibidea. Kristina Altuna da Berdintasun teknikaria eta berak azaldu digu berdintasun plana garatze bidean azaro-abendurako antolatu duten ekitaldi sorta.

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean tratatu eta aukera berdintasuna lortzea dira besteak beste Ordiziako Berdintasun Planaren helburuak. "Nahiz eta emakumezkoak eta gizonezkoak ezberdinak izan, aukera berdinarik izan behar ditugu, bai aukeretan eta bai lorpenetan", dio Kristina Altuna teknikariak. Hori dela eta, duela 3 bat urte, "Ordiziako Udalak, apustua egin zuen, Berdintasun arloari indar gehiago emateko. Aurrekontu bat finkatu zen Berdintasun arlorako. I. Udal Berdintasun Plana egin zen 2009an. Diagnostikoa egin zen, prozesu partehartzailearen bitartez eta gero lau urterako plana zehaztu zen. Urtero, plan operatiboak egiten ditugu", zehaztu du teknikariak.

Berdintasun Planaren

barruan, lau ildo edo ardatz estrategiko finkatu ziren: genero mainstreaminga, emakumeen ahalduntzearen eta parte-hartze soziopolitikoaren ardatza; bateragarritasun eta baterako erantzunkizuna eta emakumeen aurkako indarkeria.

### Genero indarkeriaren betaurrekoak jantzi

Berdintasunaren kontuan, "konturatu gabe egiten ditugu akatsak. Hezi gaituzten bezala egiten ditugu gauzak. Hausnarketa egin behar dugu eta gauzak beste modu batera egiten hasi. Genero ikuspegiaren betaurrekoak jartzea da garrantzitsua. Betaurreko horiek jarri bezain laster, berehala ikusten dira akatsak, baina jartzen ez badituzu, gizartean normalizat hartzen dena ondo dago, beti horrela



*Kristina Altuna Ordiziako Udaleko Berdintasun teknikaria.*

ezagutu dugulako. Asko kostatzen da gure jarrera aldatzea. Gauza berria da, ikasitakoa desikasi behar dugu eta lekua utzi mundua ikusteko beste modu horri. Asko dago egiteko eta honen alde asko egin dezakegu denok".

### Berdintasunean hezi

Berdintasun lan horretatik,

onurak etorriko direla uste du Kristina Altunak. "Onurak zeintzuk dira? Gauzak hobetuko litzateke. Adibidez, genero indarkeriaren kasuan. Zenbat emakumezko hil dituzte aurten? 50? Errealitatea hori da. Berdintasunean hezten bagara eta lortzen badugu benetan lan egitea boterearen oreka hori lor-

tzeko, tratu txarrak eta horrelako kasuistakak, desagertu egingo lirarteke”.

Berdintasuna lortze bidean, urratsez urrats ari da lanean Ordiziako Udala. Azaro-abendurako, hainbat ekintza antolatu du.

## Elkarteentzako formazio tailerra

Herriko elkarte eta eragile ezberdinetan ari dira elkarlanean. “Arloka ari gara: kirola, kultura, hezkuntza, ongizate saila... Nola landu daitekeen berdintasun arloa euren programetan. Iaz adibidez, kirol arloan ikerketa bat egin genuen, emakumeen partaidetza kirolean zein zen ikus-teko... Herriko elkarteetako zuzendaritzetan emakumezkoen partaidetza zein den ere aztertu dugu”. Ildo horretatik, “formazioa eskainiko diegu, abenduan ziurrenik. Generoa nola kontutan izan elkarteko eginkizunetan”.

## Autodefentsa ikastaroa

Emakumezkoen esku ere badago berdintasunaren alde arloan lan egitea, norberaren etxetik hasita. “Batetik, garrantzitsua da, lana eta familia uztartzea, eta bestetik, ardurak ere banatzea. Gizonezkoak ere arduratzea proiektu horretan. Familia sortzeko proiektua baldin badaukagu, bien ardura eta lana izan dadila. Orain arte emakumearen esku gelditzen zen etxeko lana eta lan produktiboa deitzen zena, gizonezkoaren eskutan. Horrek dependentsia ekonomiko

## Hizkuntza eta irudia

Ordiziako Udalari begira, gida berezia argitaratu dute, lan tresna gisa: ‘Nola erabiltzen dugu hizkuntza eta irudia?’. “Irudiak askotan, neutrotzat hartzen ditugunak, ez dira neutroak eta gehienean indarra ematen diegu betiko irudiei. Adibidez, kirol arloan, gehienetan, gizonen irudiak atarako dira kirola egiten. Berez, neutrotzat hartzen diren irudiak dira, baina gizonezkoak dira. ‘Modelado’ egiten dugu. Emakumeak ez baditugu egunkarietan edo kirol munduan ikusten, zailagoa izango da bide hori jarraitzea. Saiatu behar gara irudiak orekatuak izaten, gizonezkoak zein emakumezkoak azaltzen ekintza ezberdinetan”.

Hizkerari dagokionean ere antzeko zerbait gertatzen dela dio Kristina Altunak. “Erdaraz, jenerikoa bezala maskulinoa erabiltzen da. Los niños, los hombres... Aipatzen ez dena ez da ikusten eta ikusten ez dena ez da existitzen. Oso garrantzitsua da hizkuntza ere zaintzea eta emakumearen presentzia azaltzea. Datuak biltzen ditugunean, zenbat neska eta zenbat mutil bereiztea garrantzitsua da. Adibidez, ekintza honetan 100 haurrek parte hartzen dute esaten dugunean, ondo legoke, neskak zenbat diren eta mutilak zenbat diren bereiztea. Adibidez, ekintza horretan parte hartzen dute 20 mutikok eta 80 neskak. Datu horrek beste errealitate bat islatzen du. Oso garrantzitsua da genero ikuspegia txertatzea eguneroko bizitzan eta eginkizunetan. Konturatzen hasi behar gara. Lana era neutroagoan egin beharko genuke”.

egoera bat sortzen du eta horrekin lortzen da, pertsona bakoitza laranja osoa izan beharrean, erdia eta erdia garesta eta elkar osatzeko beste erdia behar dugula. Bakoitza laranja osoa bihurtu behar gara, goazen gure ahalmen guztiak garatzera eta laranja bihurtu gaiteze. Gero erlazioatuko gara, nahi dugulako, eta proiektu bat aurrera eramateko. Gauzak aldatzen ari dira baina oraindik asko falta da. Oraindik

etxeko ardura, gehienetan, emakumezkoaren esku dago. Kanpoan lana egiten badugu, doble eta triple jornada izaten dugu. Denbora ez zaigu gelditzen gizartean parte hartzeko. Denbora gutxiago eta ordutegiak zailagoa. Dena dago lotuta”.

Kristina Altunak dionez, lehenik eta behin, “emakumeak berak sinistu behar du bere indarrean eta produktibo mailan ere lan egin dezala”.


Ildo horretatik, jabekuntza

kontzeptua erabili du Berdintasun teknikariak. “Oso termino garrantzitsua da. Emakumeak daukan ahalmen guztiak garatu behar ditu. Sinistu egin behar dugu gure indarrean eta aurre egitea gure bizitzarekin. Autonomia lortu. Emakumezkoak bere eskutan lan asko dauka egiteko. Genero indarkeriaren kontuan adibidez, defendatzeko gai garesta ikusi behar du”.

Defendatzen ikasteko, emakumezkoentzat autodefentsa ikastaroa antolatu dute. Asteburuan, azaroaren 19an eta 20an izango da. “Sexu erasoak, bortxaketak... izaten dira; errealitate bat da. Alde batetik, alabei ematen diegun mezua, ‘kontuz, adi...’ izaten da. Agian, konturatu gabe, beldurra transmititzen ari gara. Bide horretatik bakarrik ez gara joan behar. Emakumezkoek ere sentitu behar dugu ahalmena badugula defenditzeko, ez daudela indefentsa. ‘Guk ere zerbait egin dezakegu’ lema eduki behar dugu barnean. Txipa aldatu behar dugu eta ikusi, horrelako egoera batean topatzen bagara, agian badaukagula zer egin. Hortik lotuta antolatu dugu autodefentsa ikastaroa. Gure indarrean sinistu behar dugu”, zehaztu du Kristina Altunak.

## Hiri segurua: hirigintza eta generoa

Azkenik, hirugarren tailer bat ere antolatu dute Ordizian, Hiri segurua proiektuaren barruan. ‘Hirigintza eta gene-



**Lanber**  
 LAN BERTIKALAK S.L.  
 San Bartolomé, 12 ORDIZIA  
 Tel.: 605 712 018  
 Tel.: 943 162 427  
 Web: www.lanbertikalak.es  
 Mail: info@lanbertikalak.es

fatxadak, teilatuak,  
 terrazak, kanaloaiak,  
 bajanteak...



**SILVIAMIRAS CASASAYAS**  
 ODONTOLOGOA  
 KOL. Zka. 649 RPS. 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87  
 SAN INAZIO KALEA, 2  
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



*Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko Ordiziako Kimetz elkarateak bileko aurreneko ostegunean kontzentrazioa egiten du Ordiziako plazan.*

## Azaroak 25: 'Emakumeen aurkako indarkeriari ez!

Emakumeenganako indarkeriaren Nazioarteko Eguna izaten da azaroaren 25a eta Ordiziako Kimetzek, bi ekintza antolatu ditu. Batetik, bideo foruma eta bestetik, bilkura. "Nagore Laffageten hilketari buruzko Elena Tabernaren dokumentala ikusiko da eta ondoren, solalsadia izango da. Ondoren, kontzentrazioa egingo da plazan. Irati Goikoetxeak olerkiak errezitatuko ditu".

### Gazteak

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan, gazteengan ere iritsi nahi dute Berdintasun Siletetik. Genero indarkeriaren aurkako kanpaina egingo dute Ikastetxeetan ere. 'Beldur barik. Indarkeria sexistaren aurkako gida' banatuko dute eta tailerra ere egingo dute.

roa'. Herriko toki guztietatik trankil mugitzen al gara edozein ordutan? galderari erantzuten saiatuko dira.

Izan ere, Berdintasun teknikariak azpimarratu duenez, hirigintzak ere generoa dauka. "Formazio bat egin zen ikusteko hirigintzak zein zerikusi daukan generoarekin. Kaleak ez dira neutroak eta hirigintzak ere generoa dauka barruan. Hiriak sortu zirenean, gizarte bakoitzean zeuden baloreak zeuden indarrean. Zer zen gehiena baloratzen zena? Gehienetan, produktibitatea. Kaleak normalean egiten ziren, ekonomiko ikuspegitik eta ez eguneroko bizitza aurrera eramateko ikuspegitik. Normalean

orain arte hori ez da kontuan izan. Orain hasi da kontuan izaten. Barrera arkitektonikorik gabeko herririk ez da izan nahi orain arte. Erosketa gurditxoarekin baldin bazoaz, edo haur txikiarekin bazoaz, oztopoak baldin badituzu... orain horiek denak kontuan hartzen dira. Kontuan hartu

behar da erlazioatuta daudela gizarteak dituen baloreak eta hirigintza".


Segurtasuna ere lotuta doa. "Zerk lagundu dezake kalean segurtasun sententzia ematen? Alde batetik, norberak landu beharko du baina bestetik, adibidez, bide estu batetik bazoaz eta alde batean

landaredia dago, sasia.. eta etxera joateko hortik pasatu behar zara. Hor adibidez, hirigintzatik zerbait egin daiteke. Badaude estrategiak. Gasteizen kongresu bat egingo dute horri buruz. Adibidez, garbitasunak eta argitasunak ere segurtasuna ematen dute. Tunel bat ikusten duzu, iluna. Baina txuriz margotu, argiak jarri, ispiluak jarri... herramienta horiekin beste sententzia bat izango duzu. Horrelako gauza txikiak kontutan hartzen hasi behar gara. Emakumeekin kontatu behar da. Herrian ibilbide bat egingo dugu, Hirigintzara proposamenak egiteko, segurtasunaren alde. Denontzako izango da".

**“Emakumeekin kontatu behar da.  
Herrian ibilbide bat egingo dugu,  
Hirigintzara proposamenak  
egiteko, segurtasunaren alde.  
Denontzako izango da”**

# + Goi

## SAN ANDRES JAIK ORMAIZTEGIN



Citroen markako kotxe berriak  
eta bigarren eskuko aukera zabala

Auto konponketa mota guztiak  
prezio ezin hobean

*San Andres jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!*

Garaje ETXE-AZPI S.L.

☎ 943 88 10 61 - 943 88 60 58

E-mail: [etxe\\_azpi@telefonica.net](mailto:etxe_azpi@telefonica.net)

ORMAIZTEGI

**Azaroak 17, osteguna:**

**16:00etan:** Puntu txapelketa Jubilatuen elkartearen.

**Azaroak 18, ostirala:**

**16:00etan:** Toka, Bote eta Igel txapelketak Jubilatuen elkartearen.

**22:30ean:** Kontzertuak OGAK antolatuta, txosnetako karpan: Nekez, Fiachras eta E.H. Sukarra.

**Azaroak 19, larunbata:**

**12:00etan:** Lagun taldeen bilkura Eleganteen eguna ospatzeko.

**14:00etan:** Eleganteen bazkaria, Zubipe kiroldegian, OGAK antolatuta.

**Bazkalondoren:** Joku Eleganteak.

**16:00etan:** Mus txapelketa jubilatuen elkartearen.

**16:30ean:** Zumalakarregi Museoa antolatuta haurrentzako jokoak.

**23:00etan:** Zesuma taldearekin dantzaldia.

**Azaroak 20, igandea:**

**11:00etan:** XVIII. Artisau erakusketa.

**12:30ean:** Meza Nagusia.

**13:30ean:** Aintziñe Gozotegikoa eta Elozegi Ardotegien eskutik jaki eta edariak dastatzeko aukera izango da.

**18:00etan:** Kiki eta Koko pailazoaren eskutik 'Sustrai bizi biziak' ikuskizuna, Zubipe Kiroldegian.

**19:00etan:** Goruntz dantza taldearen saioa, Zubipe kiroldegian.

**Azaroak 25, ostirala:**

**16:30ean:** Mozorroturiko umeen kalejira kiroldegitik herriko enparantzara, Txindata Musika Eskolako trikitilari taldeak alaituriko giroan. Haurrentzako askaria enparantzako karpan.



**18:00etan:** Ikurrina altxatzea eta suziri jaurtiketa 2011. urteko jaiei hasiera emanez, buruhandiek alaituriko giroan, herriko enparantzan.

**1:00etan:** Konzentrazioa: 'Euskal presoak Euskal Herrira'.

**22:30ean:** Kontzertuak OGAK antolatuta, txosnetako karpan: Indarra, Ihesbide eta Madeleine.

**Azaroak 26, larunbata:**

**Egun guztian zehar:** Mozorroturiko lagun taldeek herriko kaleak alaituko dituzte.

**12:00etan:** Haurren danborrada, Burrenbazale txaragaren doinuak jarraituz.

**14:00etan:** Mozorroturiko lagun taldeen bazkaria Zubipe Kiroldegian.

**16:30ean:** Mozorroturiko



# SANANDRESAK ORMAIZTEGIN

lagun taldeen jaitsiera, Skandalue Elektrotxarngaren doinuak jarraituz.

**22:00etan:** Mozorro lehiaketako sari banaketa enparantzako karpan.

**23:00etan:** Dantzaldia Gozo-gozo taldearekin, txosnetako karpan.

**23:00etan:** MP5 taldearekin dantzaldia herriko enparantzan.

## Azaroak 27, igandea:

**12:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:30era:** Haurrentzako parkea, Zubipe kiroldegian.

**11:00etatik 14:00etara:** Ormaiztegiko XXV. Odolki lehiaketa; XIV. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa; Euskal Herriko produktuen azoka eta lehiaketa; eta Ormaiztegiko Odolkia osagaitzat duen plateren X. Sukaldaritza lehiaketa.

**12:00etan:** Ardo dastaketa.

**19:30ean:** Asier Kidam magoaren saioa, Zubipe kiroldegian.

## Azaroak 29, asteartea:

**17:00etan:** Eskola Kiroleko haurren pilota partiduak eta II. Banakako sasi pelota finala, Zubipe kiroldegian.

**19:00etan:** 'Duoaulos' organo eta oboe kontzertua,

Alberto Saez Puente eta Casandra Alvarez Muñozen eskutik, Ander Deunaren elizsan.

**20:00etan:** Helduen danborradako partaideen afaria, Zubipe kiroldegian.

**23:00etan:** Helduen danborrada herriko kaleetan zehar, Burrunbazale txarangarekin.

## Azaroak 30, asteazkena:

**08:30ean:** Gaixoa Ni, Udaletxe aurrean.

**12:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:00etara:** Haurrentzako parkea, Zubipe kiroldegian.

**10:30ean:** Herriko Txindata Musika Eskolako txistularien goiz eresia.

**11:30ean:** Ormaiztegiko 'Urmaiz' abesbatzak abesturiko Meza Nagusia.

**12:30ean:** Udalak eskainitako Hamaiketako, Barduliarrak elkartearen laguntza.

**13:00etan:** Herri kirol jaialdia: Donato Larretxea-Jabier Elorriaga eta Fausto Mugerza-Iñaki Azurmendi aizkolariak eta Mikel Saralegi harrijasotzailea.

**19:00etan:** Bertso jaialdia, Zubipe kiroldegian: Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes eta Beñat Iguaran. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

**ARANA TABERNA**

Mokau goxok ta giro earra!  
Gurekin ondo pasa festak!

© 943 16 02 05  
ORMAIZTEGI

**ARRANDEGIA JOSETXO**

**JOSETXO ARRANDEGIA**  
ARRAINAK ETA MARISKOAK

☎ 943 161 366  
San Andres, 31 ORMAIZTEGI

**ziPOTZ taberna**

Giro berria Ormaiztegin, zatoz eta gozatu juergasmoan!

635717989  
Zumalakarregi etorbidea  
ORMAIZTEGI



**BURDIN ETA BURDIN-SARE BILTEGIA**

Igara industriagunea, 6  
ORMAIZTEGI  
Tel.: 943 881 368 - 943 881 121  
Faxa: 943 160 392  
E-mail: hierrosmavi@terra.es

*Jai zoriotsuak denoi!*

**ILEAPAINDEGIA**  
Azken teknika eta estiloak  
Tratamendu bereziak: ile erorketa...

**ESTETIKA**  
Depilazio elektrikoak  
Gorputz eta aurpegi tratamenduak  
Masajeak

**ITSASO**  
apeaindegia  
San Andres, 31  
☎ 943 88 06 24  
ORMAIZTEGI

**HIERROS MAVI, S.L.**

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegitratzea
- Altzarigintza industrialak
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90  
Faxa: 943 88 82 67  
Zumarralde 10  
ORMAIZTEGI

**ARANTXA taberna**

Bonoloto  
Primitiva  
Kinielak

**Pintxo eta ogitartekoak**

San Andres, 13  
☎ 943 88 28 22  
ORMAIZTEGI

**ITXUNE**  
ERRETEGIA JATETXEA

Gabirialde, 14  
ORMAIZTEGI  
Tel.: 943 16 48 44

- eguneko menua ● plater konbinatuak ●
- koadrilentzat menu bereziak ● ● ogitartekoak ●
- despedidak ● ● karaokea ● ● ostatua ●

*San Andres zoriotsuak opa dizkizuegu!*



Irizar, mende bat betea eta hazten

[www.irizar.com](http://www.irizar.com)





Andoni  
Aizpeolea  
zegamarra  
paraplegikoa da  
eta gurpildun  
aulkia du  
ibiltzeko tresna:

**“Badago beste bizi bat eta  
merezi du. Kirolak ematen duen  
onura fisikoa eta psikikoa oso  
garrantzitsua da”**

**D**uela ia 12 urte bizitza aldatu

zitzean Andoni Aizpeolea zegamarra-ri: eskiatzen ari zela izan zuen istripuaren ondorioz, paraplegiko gelditu zen. Gurpildun aulkian mugitzen da. Azkenaldian, kirolean aurkitu du gozamina. Bizikletan eta palan aritzen da.



## Azaroaren 19an Zegaman

Hiru partida jokatzen dira egun bakoitzean. Zegaman, hiru bikote hauek izango dira: Edurne Unamuno-Patxi Fadrique, Andoni Aizpeolea-Beñat Lizaso eta Urko Peña-Edorta De Anta. **Etxean, Zegaman arituko zara azaroaren 19an.**

Bai. Egunpasa egingo dugu. Bazkaria nik neuk prestatuko dut elkartearen. Palan jokatuko dugu goizez, Goierri barrualdera gutxitan joaten da jendea eta turismo pixka bat ere egingo dugu.

Azaroaren lehenengo asteburuan izan ziren euriteen bihamu- nean joan gara (azaroak 7) Andoni Aizpeolearengana, Usurbilera. Errepidean nabarmenak dira euriteen ondorenak. Bere etxe azpiko taberna batean geldituta gaude. Tabernan sartu eta argirik ez dago. Argia kendu dutela esan digute tabernakoek. Gizon bat sartu da tabernan. Goierriarrakoak garen galdetu digute. Baietz, erantzun diogu. 'Aizpe'-k ezin duela jaitsi eta etxera igotzeko enkar- guarekin etorri da. Jakina, argirik ez dagoenez, igogailu- rik ez dabil eta Andoni Aizpeoleak ezin du kalera jait- si.

Etxera sartu eta hantxe aurkitu dugu Andoni Aizpeolea. Etxea egokituta duela berehala ohartu gara. Kafea prestatzen hasi da zegamarra. "Orain ikusiko duzue paraplegiko baten bizitza nolakoa den", esan digu. Kafea nola prestatzen duen erakutsi digu. Sukaldea bere beharretara egokituta dauka. Kafe goxoa prestatu digu eta solasaldia hasi dugu.

**Igandean Behobia-Donostia lasterketa izango da. Iaz parte hartu zenuen hand-bikean edo eskuko bizikletan. Aurten ere ba al daukazu asmorik?**

Bai, eguraldia txarra ez bada behintzat. Iazko esperientzia poli- ta izan zen. Hasieran iazko denbora hobetzea jarri nuen helbu-

ru, baina azkeneko bi hilabeteetan gutxi ibili naiz eta hasi eta bukatzea beste helbururik ez dut.

Hasiberria naiz hand-bikean. Iaz hasi nintzen. Norbere buruari helburua jarri behar izaten dio, bestela erraza da uztea. Behobia egitea jarri nuen erronka. Oso esperientzia polita izan zen. Batzuk kompetitzen ibiltzen dira gehiago. Ni, ez. Nik bizi- kleta, gozatzeko nahi dut.

**Zer iruditu zitzaizun Behobia-Donostia?**

Iaz nire buruari helburua jarri nion eta oso gustura bukatu nuen. Espektakulu bat iruditu zitzaidan. Kemenek (Ezindu Fisikoen Kirol Elkarte) gai- nera oso-oso ondo antolatzen du eta antolakuntza perfektua zen. Txundituta gelditu nintzen. Bakoitzarentzat bi laguntzaile jartzen dituzte.


Esperientzia ona izan zen. Gaintzurisketara arte ez zuen euririk hasi. Handik aurrera, euria hasi zuen eta ez zuen atertu. Bizikletan zoaz, jende

pilo bat ikusten duzu, aupaka eta animoka... 'Eguraldi honekin jendea erotuta dago' pentsatzen duzu. Eta bukaeran jendeak esaten du: zuek erotuta zaudete. Espektakulu bat iruditu zitzaid- dan.

**Hand-bikean ibiltzen zara. Nolakoa da hand-bike?**

Triziklo bat bezalakoa da. Hiru gurpil ditu, bi atzean eta bat

**Behobia Donostia espektakulu bat iruditu zitzaidan. Kemenek (Ezindu Fisikoen Kirol Elkarte) gainera oso oso ondo antolatzen du eta antolakuntza perfektua zen. Txundituta gelditu nintzen.**



## Erregeen “loteria”

### Noiz gaixotu zinen?

2000. urteko urtarrilaren 7an. 12 urte egingo ditut.

### Erregeen “oparia”, beraz.

Loteria. Niño loteriako dezimo bat banuen, 6an; eta ez zitzaidan tokatu. 7an ez neukan dezimorik hartuta baina boleto asko nituen sobrare, ezjakinean erosiak. Eskiatzen izan zen.

### Eskiatzera joaten al zara orain?

Ez naiz joaten. Askotan esan didate baina bi gauzogatik ez naiz joaten. Batetik, badakit berriz joango banintz kateatu egingo nintzatekeela. Niretzako kirolik onena, gehiena gozatu dudan kirola eskia izan da.

Bestetik, min hartu aurretik eguraldi hotza, beroa baino askoz ere hobeto eraman nuen. Baina orain, mina hartu nuenetik, hotza ezin dut jasan. Orain, neguan, ahal dela, berora joaten naiz. Zirkulazio aldetik, hankak beti hoztuta edukitzen ditut. Dena den, kuriooa da: orain bi tenperatura dauzkate: lesiotik gora eta lesiotik behera. Lesionatua beroan hobeto egoten da eta lesio gabekoa beroarekin okerrago egoten da. Neguan hobeto egoten da lesio gabekoa eta lesionatua okerrago.

Saiatzen naiz, ahal dela, negua moztzen, pare bat hilabete kentzen eta leku beroagotara joaten. Baina zaila da, apartamentu egokiturik ez baitut inon ere aurkitzen. Lau urtetan jarraian Kubara, Habanara joanez egon naiz eta esan diet etxeren bat egokitzeko, negua han pasatzeko, eta ez dut lortu. Ia etsi dut. Beste leku batzuetara begiratzen ari naiz. Zailtasuna, leku egokitua lortzea da. Ez dago. Hotel bateko logela, bi hilabeterako, batetik garestia da eta bestetik, hotza egiten zait. Gainera, ez daude batere ondo. Aurkitu dudana hotelik egokitu onena, Kuban aurkitu dut.

aurrean. Bizikletak bezala, berdin-berdin ditu, platoak eta desarrolloak. Pedalak, hankarekin orde, eskuarekin ematen dira. Eskuarekin manejatzen da. Eserita joaten zara.

Kemen-en bitartez probatu nuen. 8-10 egunetan probatu eta kateatu egin nintzen. Hirugarren eskuko bizikleta bat erosi nuen. Oso polita izan da. Imaginatzen ez zinen lekuetara joaten zara hand-bikearekin, gurpildun aulkian joan ezingo nintzen lekuetara joaten naiz. Oso ona da fisikoki, eta oso ona da “ganbararako”.

### Non ibiltzen zara bizikletarekin?

Trafiko gutxi dagoen lekua behar dugu. Bidegorria bada ondo, baina ez da oso erosoa. Bidegorri estua da eta denetik ibiltzen da: patinetan, oinezkoak, zaharrak, umeak... Urbasa aldean, Alegiatik Ordiziara, Araba aldean, Lizartzatik Betelura... ibiltzen gara.

Denboraz eta indarrez nola gabiltzan, Alegitik Ordiziara, Zaldibiara, Zaldibiatik Larraitza eta Amezketatik buelta egiten dugu. Ondo etortzen da. Oso sensazio onak dira. Ni Larraitza, kotxez joaten naiz, ez nuen uste izango bizikletan joan ahal izango nintzenik.

### Gaixotu aurretik bizikletan ibiltzen al zinen?

Gaixotu aurretik batez ere, eskia, bizikleta eta mendia egiten

nituen. Bizikleta asko gustatu izan zait, alforjak jarri eta 15 egun batetik bestera ibiltzeko. Horrelako bidaia asko egin nituen min hartu aurretik. Bizikletarekin asko gozatu nuen baina ez zait behin ere bururatu lehiatzea. Nire airera ibili izan naiz beti eta orain ere bai. Diesela naiz.

### Orain pelotan ere ibiltzen zara.

Dena batera samar izan da. Lehendabizi pelotan hasi nintzen.

Bikote bat badugu Usurbilen, IVEFeko irakasleak eta kirol egokituko ikasketak egin dituzte. Animatu gintuzten palan jokatzera. Inon ez da jokatzeko, bakarrak gara. Beno, geroztik deskubritu genuen Tarbesen beste talde bat zegoela. Deskubritu, eza-gutu eta elkartu ginen. Elkarren aurka egin ditugu halako saio pare bat.

Irakasleek animatuta hasi ginen. Lehenengo bi hasi ginen, gero hiru... Hasieran ni ez nintzen gehiegi joan, ez nintzen palan ikusten. Proba

egin eta horretan ere berehala kateatu nintzen.

Denbora pilo bat dugu libre eta alizienteak behar ditugu. Ikusten duzu fisikoki ere izugarriko bentaja egiten dizula. Nahiz eta saiatu erreabilitazioetan ibiltzen... hala ere kirola egitea, gehiena geldi daukagunez, mobilidade horrek asko laguntzen du. Eta psikoki ere bai. Askok erlaxatzen zaitu.

“Imaginatzen ez zinen lekuetara joaten zara hand bikearekin, gurpildun aulkian joan ezingo nintzen lekuetara joaten naiz.

Oso ona da fisikoki, eta oso ona da ‘ganbararako’”.

# “Herriak oso gaizki daude”

**Etxea egokituta daukazu. Herriak zer moduz daude?**

Gaizki, oso gaizki.

**Kontzientziarik ez al dago?**

Mila arazo daude, legedi aldetik ere betetzen ez direnak. Gehiena, ezjakintasunak egiten du. Ezjakintasunak baino gehiago egiten du, beharrik ez izateak, ez konturatzeak. Nire buruari ere askotan esaten diot, normal nengoenean ez zitzaidala burutik pasa ere egin, horrelako historia bat. Ziur asko, elbarrien aparkalekuetan aparkatuko nuen. Beharra izan arte ez zara konturatzen. Normalean herriak oso gaizki daude. Gero eta gauza gehiago egiten dira baina hala ere oraindik asko falta da.

Baina badaude herri batzuk oso ondo daudenak. Donostia, Orereta eta Irun adibidez. Aurreratuagoak daude. Hiru udaletxeak, PSOErenak izan dira orain arte. Lasarte bera ere nahiko ondo dago.

**Herri asko aldapatsuak dira.**

Aldapatsua da Usurbil eta ondorioz sano neukana mintzeko aukera zegoen. Beraz, gurpildun aulki elektrikoa erosi zuen. Ez naiz damutu. Hori izan zen beste arrazoiatariko bat, aulki elektrikoa hartu nuenean, kirola egiten hasteko. Esfuerztu gutxiago egiten nuen eta beste esfuerztu mota bat egiten hasi nintzen.

**Zein izaten dira ohiko akatsak?**

Espaloietako beheratzeak, gaizki eginda, komun egokiturik ez dago, aldapak, eskilarak... Irisgarritasuna gaizki dago.

Aurrekoan, Antzuolara joan eta bazkaltzen gelditu ginen. Ez genuen komun egokiturik zuen tabernarik aurkitu. Bakar bat ere ez omen zegoen. Antzuolan bezala, beste leku askotan. Obra berriak egin dituztenak, legedi aldetik behartzen dituzte, baina jendeak ez du legederik betetzen.

**Eta garraino publikoa zer moduz dago?**

Badaude baina gehienez akatsarekin. Usurbildik Donostiara Ospitalera joateko autobus egokitu bat jarri dute eta behin proba egin nuen. Jaitsi, igo... azkenean lortu zuen txoferrak baina horrela ibiltzea ez da kontua. Saloun izan nintzenean, han oso ondo zegoen.

“Herriak oso gaizki daude. Gehiena, ezjakintasunak egiten du. Ezjakintasunak baino gehiago beharrik ez izateak, ez konturatzeak”.



Pala, bizikleta baino kirol agresiboagoa da. Gehiago gustatzen zait bizikleta baina palan ere oso gustura nabil. Oso kirol gogorra da pala. Lesio motak zerikusi handia du. Normalean, zenbat eta lesio bajuagoa izan hobeto. Baina nik horretarako ere lesio txarra daukat, nahiko lesio altua baitaukat. Ez daukat inongo estabilitaterik gerrian. Orduan aulkian oreka mantentzea gehiago kostatzen zait, palarekin ematea baino. Beste batzuk, lesioa bajuagoa dutenek, abdominalak dituzte, gorputza kontrolatu egiten dute eta jokatu ere askoz ere errazago egiten dute, indar eta mugikortasun gehiago baitute. Baina horri ez diogu garrantziarik ematen. Bakoitzak badakizkigu geure mugak non dauden, eta bakoitzak ahal duenaren arabera egiten du. Sei ibiltzen gara eta oso giro polita daukagu.

## Nola jokatzeko duzue?

Gomazko pelota batekin jokatzeko da. Pelota eta pala nahiko arinak dira. 25 tantura jokatzeko dugu. Dena berdina da, baina alde bakarra dago: pelota bote bakarrera bueltatu beharrean, bi botera bueltatu daitekeela. Bigarren boteak balio du. Izan ere, pelotara lehenengo iritsi egin behar da eta asti gehiago behar dugu. Guk egindako araudia da.

## Aurten txapelketa jarri duzue martxan.

Bi urte daramazkigu pelotan, Zubietan. Geure artean hitz egin eta pentsatu genuen ea zergatik ez ginen herrietan mugitzen, jendeak ikusteko. Gurgildun aulkian jende asko dago baina kalean oso jende gutxi ikusten da. Orduan pentsatu genuen: zergatik ez gara mugitzen eta herrietara joaten, eta jendea gu ikusita, beharbada animatuko da. Orain arte, Zarautzen, Astigarragan, Usurbilen eta Donostian ibili gara. Bi urte ibilita, mejori pixka bat egin dugu eta sei gaudenez, indar pixka bat emateko, torneo antolatu dugu. Erabat ofiziala da torneo, Pelota

Federazioarekin, epaile eta guzti. Antolatu dugu, baina gu beti, hari batetik zintzilik gaude. Gaur ondo zaude, momentu honetan ondo zaude, baina bost minutura edo orduerdira sukarrarekin zaude edo min hartu duzu. Aulkitik mugitzerakoan edozein min har dezakegu. Ezusteko asko daude. Nahiko ofizio txarra da. Esfuerzo asko egin behar da. Aulkitik ohera, ohetik aulkira, komunera, kotxera... erortzea ere erraza da. Behin furgoneta barruan erori eta femurra hautsi nuen. Bakarren batek huts egiteko arriskua dago baina bakarren batek huts egiten badu, gure irakasleak, Oidui edo Iurgi, bietariko bat jartzen da gurgildun aulkian. Beraiek gustura ibiltzen dira eta gu ere bai. Geure artean giro ona dago.

## Lehiaketarekin komunikabideetan gehiago irtengo zarete beharbada, ezta? Gure kasua hori izan da behintzat.

Nik uste dut baietz. Hori ere izan da txapelketaren helburua. Antzuolan jokatu genuenean, hango komunikabideetan ateraginen. 40-50 lagun joango ziren ikustera, eta seguruenik, beraien artean, norbait ezagutuko zutela gurgildun aulkian.

Mugitzen garenean, jendea enteratzen da. Gu ikustera ez da jendea joango, baina nahi dugun helburua da, adierazi, egoera honetan zaudela ere, badagoela bizi bat. Ahalik eta jende gehien animatu nahi dugu parte hartzera edo kirola egitera. Badago beste bizi bat eta merezi du. Kirolak ematen duen onura fisikoa eta psikikoa oso garrantzitsua da. Bizimodu normalean ere bai, ezta? Gure

nahia, peloa eskola gehiago sortzea litzateke.

## Beste kiroliek egiten al duzu?

Bai, musa. Hori ere erlaxantea da. Jendeak galdetzen dit, zer egiten dek? Egun erdia nire burua zaintzen eta beste erdia nire buruz estropeatzen. Oreka bat eman behar zaio bizimoduari.

Ahalik eta jende gehien  
animatu nahi dugu  
parte hartzera. Badago beste  
bizi bat eta merezi du.  
Kirolak ematen duen onura  
fisikoa eta psikikoa oso  
garrantzitsua da.

**ZUBARA**  
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,  
Erreformak...

www.zubara.es  
943 65 34 93 - 649 46 32 89  
ABALTZISKETA

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

**ARGI** Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elikagokide zenbakia: E-2644  
RPS: 42001

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
**JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN**

Helduen,  
umeen,  
bikoteen eta  
sexologi  
tratamenduak

**OVER** Urraki  
Bidaietan adituak

**LAISTER WEB ORRI BERRIA:**  
[www.urrakibidaiak.com](http://www.urrakibidaiak.com)

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxe: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**ZEGAMA** Eskuz egindako ogi naturala  
**OKINDEGIA**

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

**SALMENTA PUNTUAK:**  
**Beasain:** Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.  
**Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Udarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzin. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txixiki, Uriarte-Pinedo.

## Ordizia

### Barroko aire jaialdia, musika barrokoaren egunak

#### Azaroak 19, larunbata:

**20:00etan:** Kanthoria taldea: Ander Berrojalbiz (biolin barrokoa), Mainer Lopez (biola da braccio) eta Virginia Gonzalo (klabea eta organoa), Parrokian.

#### Azaroak 26, larunbata:

**20:00etan:** Easo Eskolania eta Ana Otxoa (sopranoa), Marife Nogales (mezzosopranoa). Zuzendaria: Gorka Miranda. Elizan.

### Nagore Arrastuaren erakusketa

Azaroaren 25era arte, Nagore Arrastuaren pintura erakusketa egongo da ikusgai, Barrena Kultur Etxean. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara.

### Mendi astea

#### Azaroak 21, astelehena:

**19:30ean:** 'Zazpi hiriburuak oinez II'. Juanjo Mujika. Barrena Kultur Etxean.

#### Azaroak 22, asteartea:

**19:30ean:** 'Atzeraka begira'. Luis Mari de Juan 'Pintxo' eta Iban Toledo. Barrena Kultur Etxean.

#### Azaroak 23, asteazkena:

**19:30ean:** 'Everesterako biderik laburrena'. Alberto Zerain. Barrena Kultur Etxean.

#### Azaroak 24, osteguna:

**19:30ean:** 'Mount Hunter (Alaska)'. Mikel Saez de Urabain. Barrena Kultur Etxean.

#### Azaroak 25, ostirala:

**19:30ean:** 'Dolpo, biziaren muturrean'. Joxe Ramon Agirre 'Marron'. Barrena Kultur Etxean.

### Eguberrietako postreak egiten ikasteko ikastaroa

Azaroaren 21ean, 23an, 28an eta 30ean, 18:30etik 20:30era, Eguberrietako postreak egiten ikasteko ikastaroa izango da Ordiziako Gazte Lekuan, Hitzarok antolatuta. Izena emateko: hitzaro@gmail.com edo 943 162366 telefono zenbakia.

## Segura

### VII. Ipuin, bertso eta marrazki sariketa

Elorri Kultur Elkarteak, 'Joxean Ormazabal' VII. ipuin, bertso eta marrazki sariketa antolatu du aurten ere. Hiru adin mailatan banatzen da sariketa.

#### 1-2. mailakoak (6-7 urte):

Gaia: 'Olentzero autobusean'. Luzera: ipuinean, orrialde bat eta bertsoan, bi koplak edo bertso.

#### 3-4. mailakoak (8-9 urte):

Gaia: 'Olentzero lagun bila'. Luzera: ipuinean bi orrialde eta bertsoan, 3 bertso edo koplak.

#### 5-6. mailakoak (10-11 urte):

Gaia: 'Olentzero musikari'. Luzera: ipuinean bi-hiru orrialde eta bertsoan, 4 bertso.

Lanak, ikastetxean aurkeztu behar dira, abenduaren 2a baino lehen. Sari banaketa abenduaren 17an egingo da, eguerdiko 12etan, Segurako Kultur Etxean. Adin talde bakoitzeko eta arlo bakoitzeko irabazleentzat diploma bana egongo da. Partaide guztiek izango dute sariren bat.

## Legorreta

### Neguko festa

Santa Zezilia egunaren aitzakian, Neguko festa antolatu dute Legorretako Udaleko Kultura batzordeak, Ugarotarrak Guraso elkarteak, Elekun abesbatzak eta Musika Eskolak.

#### Azaroak 18, ostirala:

**20:00etan:** Elekun abesbatza, herriko kaleetan zehar.

#### Azaroak 19, larunbata:

**17:30ean:** Kalejira Musika Eskolako txistulariekin eta abesbatzarekin.

**18:30ean:** Gaztaina jana Udal pilotalekuan.



**GERTU**  
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN  
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
gertu@gertuasesores.com

*Olagi*

Urte guztian  
zabalik

Sagardotegia  
Jatetxea

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko menua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



## Beasain

## Mendi astea

**Azaroak 21, astelehena:**

**19:30ean:** Arrastaka Mendi Taldeak urtean zehar egindako ekintzei buruzko ikusentzunezkoa, Udaletxeko Batzar Aretoan.

**Azaroak 22, asteartea:**

**19:30ean:** Aizkorri Mendizale Elkarteak, 'Trikuharriak. Etxarri-Aranatzetik Lizarrustira zeharkaldia' aurkeztuko du, Udaletxeko Batzar Aretoan.

**Azaroak 23, asteazkena:**

**19:30ean:** Karmelo Ezeizaren 'Allutz' ikusentzunezkoa, Udaletxeko Batzar Aretoan.

**Azaroak 24, osteguna:**

**19:30ean:** Iñaki Mozo beasaindarrak Ehunmillak probari buruz egindako ikusentzunezkoa, Udaletxeko Batzar Aretoan.

**Azaroak 25, ostirala:**

**19:30ean:** Asier Izagirre mendizalearen 'Azkeneko sei zortzimilakoak' ikusentzunezkoa, Udaletxeko Batzar Aretoan.

**Azaroak 26, larunbata:**

**Egunean zehar:** Beasaingo rokodromoan eskalada praktikak egiteko aukera izango da.

Iñaki Azurmendi aizkolariari  
omenaldia

Euskal Herriko Aizkolarari Txapela irabazi berri duen Iñaki Azurmendiri omenaldia eskainiko dio Beasainek, abenduaren 18an. Arratsaldeko 7etan, Udaletxean, harrera egingo zaio Azurmendiri. Ondoren, gaueko 9etan, Arriarango Intxaurpe Elkartearen afari herrikoia egingo da. Afaria 25 euro kostako da. Afarirako aurretik eman behar da izena, elkartearen bertan edo Antzizar kiroldegian.

## Beasain

## Azaroko ekintzak

**Azaroaren 18tik 27ra;**

Argazki erakusketa: 'Sari-tik Harantzago. Indiako emakumeak ekitatearen bidean', Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Antolatzailea: Calcuta ondoan.

**Azaroak 20, igandea:**

**17:00etan:** Haurrentzako zinea: 'Phineas y Ferb'. Usurbe Antzokian.

**Azaroak 22, asteartea:**

**18:00etan:** Ipuin kontaketa, Udal Liburutegian: 'Eguzkisemearen istorioak'.

**19:00etan:** Txistulariek kaleak girotuko dituzte.

**19:30ean:** Santa Zeziliaren oroimenez kontzertu berezia, Musika Eskolak antolatuta.

**Azaroak 24, osteguna:**

**21:00etan:** Zine Kluba: 'Women without men'. Usurbe Antzokian.

**Azaroak 26, larunbata:**

**20:30ean:** Gazte abesbatzen topaketa: Loinatz Musika Eskolako abesbatza, La Salleko Izan Izar abesbatza, Oroith Txiki abesbatza eta Xanbe abesbatza, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

**Azaroak 27, igandea:**

**08:00etan:** Mendi irteera: Pasaia-Hondarribia.

**17:00etan:** Dantza emanaldia, Agibailek antolatuta, Usurbe Antzokian.

**Azaroak 30, asteazkena:**

**11:00etan:** Antzerkia: 'Eta zer II'. Usurbe Antzokian.

Etxeko istripuen prebentzio  
tailerra

Etxea, istripuak jasateko lekuri ohikoena dela jakinik eta istripu gehienak prebentzio neurri errazak hartuta saihestu daitezkeela ikusirik, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, Etxeko istripuen prebentziorako tailerra antolatu du, adineko pertsoneri eta haien zaintzaileei edo laguntzaileei zuzenduta. 10 orduko formakuntza tailerra dohainik da.

Astelehenetan izango da ikastaroa, 17:00etatik 19:00etara, Erretiratuen etxean, azaroaren 28an hasita. Interesa duenak, azaroaren 23a baino lehen eman behar du izena Gizarte Ongizate Sailean (943028075).

**Ikaskide**  
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:  
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa

HIZKUNTZA ESKOLA: INGELERA  
UNIBERTSITATE MAILA (MU)

TAILERRAK:  
arreta, ulermena, ikasketa teknikak...

MEKANOGRAFIA

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7  
Beasain  
943 160 120 - 685 722 403  
ikaskide@ikaskide.net



**Iñauti Hartz Klinika**  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 ZKI. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA  
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA  
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)  
KIRURGIA  
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28

## Goierri

### Goierriko Kultur zirkuitua

Ordiziako Hitzaro Euskara Elkartek, Itsasondoko Arbelaitz Elkartek, Segurako Hitz edo Irri Euskaraz Elkarri Euskara Taldeak, Lazkaoko Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek eta Beasaingo Arrano Elkartek, elkarlanean, antolatutako Goierriko Kultur Zirkuitua martxan da azaroaren 5az geroztik. Hona hemen gelditzen diren gainerako ekintzen zerrenda:

#### Azaroak 26, larunbata:

**22:00etan:** Txirene taldearen 'Sarean zintzilikatua', Itsasondoko Eskolan.

#### Abenduak 1, osteguna:

**19:00etan:** Iñaku Perurenaren 'Harri eta herri' hitzaldia, Segurako Kultur etxean.

#### Abenduak 2, ostirala:

**17:00etan:** Begira Antzerki taldearen 'Super txarko txou', Segurako Botikaxahar Kulturgunean.

## Lazkao

### XVI. Gerriko Ikerlan bekaren liburu sarituaren aurkezpena

XVI. Gerriko ikerlan bekako liburu sarituaren aurkezpena izango da azaroaren 18an, Udaletxeko Areto Nagusian, iluntzeko 8etan. Hain zuzen ere, Maddi Garcia Olaskoagak 'Auto ibilbideak. Goierriko gazteen automobil kulturaz' idatzi duen liburua aurkeztuko da.

### Xereta dantza ikuskizuna

Gero Axular dantza taldearen eskutik 'Xereta' ikuskizuna izango da azaroaren 25ean, 19:30ean, Areria kultur gunean. Sarrera, dohainik.



GOIERRIKO **hitza** info

## Egin harpidedun

GOIERRITARRA   
urtean 29 euro

HITZA   
urtean 70 euro

GOIERRITARRA+HITZA   
urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain



# Toyota ia-berriak Kalitatezko aukera

Toyota ia-berriak programak, bigarren eskuko auto aukera zabala zure eskura jartzen du. Denak Toyota Zentru Ofizialak aztertuta eta bermatuta.

- ✓ 48 hilabeterainoko bermea.
- ✓ Eguneko 24 ordutan errepedeko laguntza.
- ✓ Toyota ziurtapenak:
  - Gutxienez autoaren 100 punturen azterketa.
  - Autoaren kilometro kopurua Toyota Zentru Ofizial batek zigilatuta.
  - Autoaren historiala.
- ✓ Erosi eta 30 egunera doako azterketa.
- ✓ Autoaren aldaketa bermea: 30 egunera edo 1.500Km-ra.
- ✓ Ordezko autoa, bermea indarrean dagoen bitartean.



Toyota IQ 1.0VVTI 9.950€  
14.000km, 2009 urtea



Toyota YARIS 5 ate 10.950€  
Gasolina, 8.000km, 2010 urtea



Toyota AURIS 5 ate 14.500€  
Diesela, 25.000km, 2010 urtea



Toyota AVENSIS 13.000€  
Diesela, 79.000km, 2008 urtea



Toyota AVENSIS 21.950€  
Diesela, 14.000km, 2010 urtea



Toyota VERSO 19.950€  
Diesela, 17.000km, 2010 urtea



Toyota PRIUS 20.500€  
Hibridoa, 11.000km, 2011 urtea



Toyota LAND CRUISER 24.000€  
3 ate VX, 88.000km, 2007 urtea



Toyota LAND CRUISER 29.800€  
5 ate VXL, 75.000km, 2007 urtea

# EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926  
BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



**TOYOTA**  
[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)



## Ormaiztegiko eskolako mutikoak, 1934-35 ikasturtean

**Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera:** Euxebio Mujika Alegria, Juan Felipe Rezusta (Mekola), Joxe Migel Zufiaurre (Sosoagahaundi), Joxe Urreta, Jesus Goia (San Esteban, Gabiria), Jazinto Mendizabal (Telleri), Markos Aranburu (Etxeberrigarakoa) eta Hilario Gartzia (Trenbideko faktorearen semea).

**Bigarren ilaran:** Joxe Ramon Lasa Eguren, Martzial Guerra (Olea) eta Juan Muguruza (maisua).

**Hirugarren ilaran:** Santi Zufiaurre (Igara), Millan Irizar, Ramon Elorza (Ermita), Bonifazio Maiora, Jeronimo Arteka (Telleriarte), Joxe Inazio Lasa Eguren, Joxe Azurmendi, Jesus Guerra (Olea), Julian Yurrita (Sagastiberri) eta Modesto Zeberio (Lapatzærrota).

**Laugarren ilaran:** Gonzalo Merzero, Joxe Frantzisko Irizar Kanpos, Joxe Garzia (Trenbideko faktorearen semea), Juan Elorza (Arangurentxiki), Joxe Martin Goikoetxe (Telleriarte), Fausto Gurrutxaga, Luis Goia (San Esteban, Gabiria) eta Angel Elorza (Arangurentxiki).

**Behoko ilaran:** Dionisio Irizar, Paskual Larrañaga, Alejandro Irizar, Joxe Mujika (Aranguren), Migel Lasa Eguren, Luis Carril (Estebane), Joxe Mari Baztarrika (Iraegi) eta Mariano Gurrutxaga (Zestorene).

**KIKO ENEA taberna**



Ostiraletan eta larunbatetan  
**plater konbinatuak**

Bazkari eta afariak enkarguz

Gipuzkoa, 13  
T. 943 08 48 11  
ORDIZIA

**ARANDIA GARAJEA**

ESEKIDURAK  
PNEUMATIKOAK  
BIRPROGRAMAZIOAK  
POTENTZIA TXIPAK

**MULTIMARKA**

N-1, z/g **OLABERRIA**  
☎ 943 88 09 47

Kol. zkia.: 764



*Nerea Larrea Oyarbide*

Aho kirurgia Inplantologia Periodontzia	Artikulazio eta ahoko minak Radiologia digital zerbitzua Eskaner digitala
---	---

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



**ASEPLAN S.L.**  
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA  
JURIDIKOA  
LABORALA  
FISKALA  
MEREKANTILA  
INMOBILIARIA  
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129  
Oriamendi 15, behea

**BEASAIN**

Tel.: 943 086 420  
J.M. Iturriotz, z/g



[www.mueblesordizia.com](http://www.mueblesordizia.com)



Diseinua  
Dekorazioa

Aholkularitzarik onena  
eta kalitatezko zerbitzu teknikoa

Mallutz, 2 - ORDIZIA (N-1aren ondoan) T. 943 88 53 50 - 943 88 23 50

# Barandiaran

= berrikuntzak | = materialak



943 88 79 72 senpere 7 beasain | 943 18 78 52 eziolatzeta B-1 idiazabal

[www.barandiaranzeramikak.com](http://www.barandiaranzeramikak.com)



# itoiz

## LEKUZ ALDATU GARA!

Kale Nagusia, 19 BEASAIN T. 943 027 520

